

90. urteurrena, Donostia, 2009-10-9

Ainhoa Beola

Egun on euskaltzainoi, agintarioi, euskalgintzako hedabideetako ordezkarioi eta hemen zaudeten guztioi.

Hiru minutuz hitz egin behar det, beraz, idatziz ekarri det nahiz eta bidelagun urtetan izan ditudan asko hementxe gaur aurrean ditudan.

Plazerra da Donostiako udalarentzat Euskaltzaindiaren 90. urteurrenean hemen zuekin batera izatea, gaur amaitzen baitituzue Donostian 2008an ekin zenioten ospakizun saioei. Iruñean egin zenuten XVI. Nazioarteko Biltzarrarekin eta Euskal Herrian barna ostean. Eta bai ondo amaitu ere jaio berri den *Erlea* aldizkariarekin, izan ere kulturgintzak oro har eta euskaraz sortutakoak bereziki, eskertu duen kultur aldizkaria baita. Guztion parte hartze aktiboa behar baitugu euskaraz sortutako kultura dinamikoa anitzak eta horretarikoak sortzen eta eraikitzen joateko.

Horretan erreferentea izan da Euskaltzaindia urte hauetan guztietan, hainbatetan nahasmena sortu digute, baina ezinbestekoak diren arauak definituz, corpusa landuz, Hiztegi Batua izan da lan ikaragarria gorpuztuz, Iker bilduman, Jagonet, *Plazaberri* agerkari digitalaren bitartez, teknologia berrietara egokitu eta erabiltzaileoi gauzak erraztu baitizkiguzue. Eta zer esango dut ba, euskal onomastika datutegiaz, lan honek eman baitigu aukera, besteak beste, Irutxulotik Donostiara bidean, Donostiara iristeko.

Niri gainera bereziki hunkigarria egiten zait gaur hemen izatea, Hiztegi Batua osatzeko lanetan aritu bainintzen hiru urtez eta jakin baitakit, zer nolakoa izan den Euskaltzaindiak egindako lana. Beraz 90 urte barru gaur hemen gaudenak urteurrena ospatzeko adituko ez garen arren, urte hauetan eta datozenetan, Euskaltzaindiak egingo duen lanari esker, beste ospakizun sakonago baterako aukera emango duela dudarik ez dudanez, zorionak besterik ematea ez zait egokitzen.

Mila esker.